

PRENTSAKO OHARRA

FERNANDO VELÁZQUEZ-EK, “EL ORFANATO” FILMEKO SOINU-BANDAREN EGILEAK, FANTROBIA SARIA JASOKO DU FANT BILBOKO ZINEMA FANTASTIKOAREN JAIALDIAREN XIV. EDIZIOAN

Fernando Velázquez 32 urteko bizkaitarrak zinemagile hasi berri onenetako batzuekin lan egin du, Juan Antonio Bayona (‘El orfanato’), Koldo Serra (‘Bosque de sombras’) edo Nacho Vigalondo (‘7:35 de la mañana’) tarteko direla

Jaialdian, Velázquez-ek ikasgai magistrala eskainiko du Barrainkuako udaltegian, eta bere lanaz, ‘Camino a El orfanato’ izenburuko atzera begirakoa antolatuko da FANTen programazioaren barruan

FANTek zinemako artista gazteei banatzen dien golardoa Fantrobía Saria deitzen da aurtengo ediziotik aurrera, eta Jaialdiaren amaierako ekitaldian emango da, maiatzaren 16an, barikua delarik

Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak antolatzen duen FANT Bilboko Zinema Fantastikoaren Jaialdia maiatzaren 8tik 16ra bitartean egingo da

Maiatzaren 8tik 16ra bitartean egingo den FANT Bilboko Zinema Fantasikoaren Jaialdiaren XIV. edizioak FANTROBIA Saria emango dio ‘El orfanato’ eta beste film batzuetako soinu bandak konposatu dituen Fernando Velázquez bizkaitarrari. Jaialdiaren amaierako ekitaldian banatuko den golardo honen bitartez, FANTek aintzakotzat hartu nahi du zinema munduko artista gazte honen lana, talentu berrien aldeko apustua berretsiz.

Fernando Velázquez-ek (Getxo, 1976) biolontxeloia ikasi zuen Getxo, Bilbo eta Gasteizko kontserbatorioetan, eta konposizioa Madrilgoan. Orkestra desberdinetako kide izan da, Euskal Herriko Orkestra Gaztea tarteko. Musikagile gaztea izan arren (32 urte besterik ez ditu), **hogei bat film labur, hamar film luze, hiru antzezlan eta telesail baterako** (‘Gominolas’) soinu-bandak egin ditu. ‘El orfanato’ filmeko zuzendari **Juan Antonio Bayonarekin batera**, ‘Mis vacaciones’ eta ‘El hombre esponja’

proiektuetan lan egin du, eta horrez gain, beste zinegile gazte batzuekin ere lan egin du, hala nola, **Nacho Vigalondo** ('7:35 de la mañana' film laburrean) edo **Koldo Serra** ('Amor de Madre' eta 'El tren de la bruja' laburretan eta 'Bosque de sombras' izenburuko bere lehen film luzean).

Bilboko Zinema Fantastikoaren Jaialdia karrera 'fantastikoa' iragartzen duten gazteentzako jaurtiketa-gune bilakatu nahian dabil, eta horretarako, aurten, **talentu berrientzako saria instituzionalizatu du, edizio honetatik aurrera Fantrobía Saria izendapena eman diolarik.**

Bestalde, 'El camino a El orfanato' atzera begirakoan, zazpigarren artearen zaleek bertatik bertara ikusi ahal izango dute Velázquez-ek **Igor Legarreta, Emilio Pérez, Oskar Santos, Sergio G. Sánchez** eta arestian aipatutako Juan Antonio Bayona, Koldo Serra eta Nacho Vigalondo zinegileen lanari egindako ekarpena.

Ikasgai magistrala Barrainkuan

Jaialdian, Fernando Velázquez-ek **FANTen aurtengo edizioko programazioan aurrikusita dauden bi ikasgai magistraletako bat** eskainiko du Barrainkuako udalategian, hilaren 15ean, goizeko 11:00etan. Beste *master class* delakoa Isaki Lacuesta zinegileak emango du (martitzenean, hilak 13).

Master class horiez gain, zaletuek zinema ardatz duten mahainguruetan parte hartzeko aukera izango dute Ambigú Jatetxean egun beretan, arratsaldeko bostetatik aurrera, sarrera doakoa delarik. Ambigú Jatetxetak, gainera, *FANTfood* deritzon menua banatuko du Jaialdiak dirauen bederatzi egunetan.

Bilbon, 2008ko apirilak 24.

UDALA • AYUNTAMIENTO

Prensa Kabinetea – Gabinete de Prensa E. Erkoreka Plaza, 1 48007 Bilbao

Tfn: 94 420 52 61 / 94 420 48 88 Faxe: 94 420 52 16 H. elek: prensa@alcaldia.bilbao.net

www.bilbao.net